



2018/02/02

Gernikako Batzarretxeak barriro gainditu dau bisitari kopuruaren marka 2017an

Beste urte batez, Gernikako Arbola enblematikoa dagon lekua bisitaleku izan da, bertakoentzat eta kanpokoentzat. 2017an, Gernikako Batzarretxeak 150.000 bisitariren marka gainditzea lortu dau, bere atepak, kontinente guztietatik etorritako 154.648 pertsonarentzat zabaldu ditu eta, 2016an baino %9 gehiago.

2016an gertatu zan moduan, Bizkaiko sinbolo hau gure lurraldeko turismorako hiru erakarpen gune nagusien artean egon da, Bizkaiko monumentu historiko bisitatuena, eta bisitari gehien dituan hirugarren kultur jomugea, Bilboko Guggenheim Museoaren eta Arte Ederren Museoaren ostean.

Hori guztia, Gernikako Batzarretxea lortzen ari dan erakarpeneko indar handiaren ondorioa da, ez Euskal herrian bakarrik –2017an izandako bisita guztien %22 bertakoak dira– baita Estaduko gainerako Autonomia Erkidegoetako eta munduko gainerako herrialdeetako bisitarien artean be.

Lehenengo kasuan, 2016an gertatu zan moduan, 18.202 bisitariren jatorrizko erkidegoa izan dan Katalunia, 16.150 izan dituan Madril eta 11.653 turista izan dituan Andaluzia azpimarratu behar dira; hiru kasuetan hazkunde txikia egon da.

Estadistikek erakusten dabenez, atzerriko bisitarien artean, Europak lehenengo lekuan finkatzen jarraitzen dau, turista gehienak bertatik datoz eta, beste kontinente batzuen aurretik. European azpimarragarriak dira Frantzia (11.334) eta Alemania (4.138). Beste alde batetik, igaz lehenengo postu horreetan Estatu Batuak sartu ziranetik, aurton herrialde haretako 5.414 turista etorri dira Batzarren egoitza bisitetan. Kontinenteei jagoken hirugarren postuan Asia dago, 3.500 bisitaz. Asian azpimarragarria da Japonia (1.959), kontinente horretako turisten erdia baino gehiago bertatik datozalako. Ranking-a Afrikak (76) eta Ozeaniak (390) osatzen dabe.

Osokoa egin dan egunetan izan ezik atepak zabalik izan dituen Bizkaiko Batzarretako egoitzak joan dan abuztuan jaso eban bisitari gehien, 29.617, hain zuzen be, eta gitxien urte hasieran, urtarrilean, 3.356 turista jasoz.

ENKARTERRIKO MUSEOA

2017an, Enkarterriko Museoak, erakusketa egonkorrari eta aldi baterako erakusketei eta egiten dauen ikerketa lanari esker, eta Abellanedan dagon Batzar Nagusietako egoitzak, bisitari asko erakarri ditue barriro. Aldi baterako erakusketen artean azpimarragarriak dira Gerra Zibilaren eta Maria Dapenaren gaineko erakusketak, eta baita Gabonetarako antolatu diran jarduerak be. Azken horreetan plaza guztiak bete dirala nabarmendu behar da.

Aurten, Abellanedako egoitzak 12.495 pertsonaren bisitea jaso dau, igaz baino %4,2 gitxiago, hain zuzen be. Urte honetako bisitari ohikoenak ikasle taldeak izan dira, gehienak Bilbo Handitik eta Enkarterritik joandakoak, bisitarien %75 perfil horretakoak izan dira eta. Gainera, 2017an, Europako herrialdeetatik etorrira leku horreetara joan dan turista kopuruak gora egin dau.

NOTA DE PRENSA

2/1/2018

La Casa de Juntas Generales de Gernika bate un nuevo record de visitantes en 2017

Un año más, el lugar donde se encuentra el emblemático Árbol de Gernika es motivo de visita tanto para autóctonos como para extranjeros. A lo largo del 2017 la Casa de Juntas de Gernika ha logrado romper con la barrera de los 150.000 visitantes habiendo abierto sus puertas a 154.648 personas provenientes de todos los continentes, un 9% más que en 2016.

Igual que sucedió en 2016, este símbolo de Bizkaia ha logrado postularse como uno de los tres principales atractivos turísticos del territorio consolidándose como el monumento histórico más visitado de Bizkaia y el tercer destino cultural con más visitantes por detrás del Museo Guggenheim y del Museo Bellas Artes de Bilbao.

Este hecho es resultado del gran poder de atracción que va adquiriendo la Casa de Juntas Generales de Gernika, no solo en Euskal Herria – quienes representan el 22% del total de visitas registradas en 2017- sino entre los visitantes del resto de Comunidades Autónomas y de países del mundo.

En el primer caso destacan, al igual que en 2016, Cataluña, con 18.202 visitantes, Madrid, con 16.150, y Andalucía, con 11.653 turistas; en los tres casos se ha percibido un ligero aumento.

Según afirman las estadísticas, dentro del total de visitantes extranjeros, Europa se sigue consolidando como el origen de la mayor parte de turistas, en comparación a otros continentes. Aquí destacan Francia (11.334) y Alemania (4138). Por otra parte, después de que el año pasado irrumpiera en este podio Estados Unidos, un total de 5.414 turistas han decidido visitar este emblema parlamentario. En este tercer puesto continental se encuentra Asia, registrando 3.500 visitas y donde destaca, concretamente Japón (1.959), como origen de más de la mitad de turistas asiáticos. Este ranking lo completan África (76) y Oceanía (390).

La sede parlamentaria vizcaína, la cual ha abierto al público a lo largo de todo el año a excepción de los días en los que se ha celebrado Pleno, alcanzó en el mes de agosto su máximo de visitantes con 29.617, mientras que el mínimo registrado fue a comienzos de año, en enero, con 3.356 turistas.

MUSEO DE LAS ENCARTACIONES

Durante el 2017 la labor expositiva y de investigación que realiza el Museo de Enkarterri tanto con su exhibición permanente como con las temporales y la sede de Juntas Generales de Abellaneda han vuelto a atraer numerosos visitantes. Destacan entre estas últimas las exposiciones acerca de la Guerra Civil y Maria Dapena, además de las actividades navideñas, las cuales han logrado completar todas las plazas.

A lo largo de este año, el centro de Abellaneda recibió la visita de 12.495 personas, sufriendo un leve descenso del 4,2% respecto al año pasado. Los grupos de escolares, provenientes en su gran mayoría del Gran Bilbao y de la propia localidad de las Encartaciones, han sido el perfil más habitual durante este año ya que representan el 75% del total de visitantes. Asimismo, durante el 2017, ha aumentado el número de turistas provenientes de países europeos que han recaído en estos lugares.